## AURKEZPENA

Duela hamar urte Sancho el Sabio Fundazioak bere kokalekua aldatu zuen Gasteizen. 2009. urtean Betoñuko Atean zegoen egoitza inauguratu zen. Urtebete geroago, 2010eko abenduan, Fundazioko zuzendari Carmen Gómezek erretiroa hartu zuen. Aurreko esaldian ezarri den egoitza-aldaketaren eta zuzendaritzaren erretiroaren arteko lotura horrek konstante bat dirudi Sancho el Sabio Fundazioaren denbora-ibilbidean.

Aurreko egoitza, 1991. urteaz geroztik, Zulueta Jauregian zegoen, Senda Ibilbidean. Eta lehenengo egoitza, 1991. urtera arte, Probintzia Plazako 13. zenbakian egon zen. Sancho el Sabio erakundearen lehen zuzendaria izan zen Jesús Olaizolak Sancho el Sabioren lehen egoitza-aldaketa eta izen-aldaketa egin zenean hartu zuen erretiroa. Senda Ibilbidean, erakundea fundazio izatera pasatu zen, eta Carmen Gómezek jardun zuen zuzendari gisa batez ere Zulueta Jauregian. Beraz, egoitza-aldaketa bakoitzak zuzendaritza-aldaketa dakarrela dirudi. Gai hori, oraingoz, hortxe utziko dugu...

Argi dagoena da Carmen Gómezek bi egoitza inauguratu zituela eta hirutan jardun zuela zuzendari gisa. Esan dezakegu une honetan Fundazio honen historiaren pertsonalizaziorik osatuena dela. Eta hamar urte igaro direnez, ondo legoke begirada bat egitea iraganari. Aurrezki Kutxa baten Gizarte Ekintzaren barruan jaiotako erakundea izaki, haren oinordeko den Vital Fundazioaren esku dago gaur egun. Ideia paregabea izan da, hirurogei urtetik gora eutsi eta lagundu zaion ideia. Eta historia eta emandako laguntza ez dira eten…

2011. urtean, adiskideak, lankideak, Sancho el Sabio Fundazioko langileak, Vital Kutxako arduradunak, kargu instituzionalak,



Sancho el Sabio, EXTRA 3, 2020, 4-9

## PRESENTACIÓN

Hace diez años la Fundación Sancho el Sabio cambió de ubicación dentro de Vitoria-Gasteiz. En 2009 se inauguró la Sede de Portal de Betoño. Un año después, en diciembre de 2010, Carmen Gómez, su Directora, se jubiló. Esta relación establecida en la frase anterior entre cambio de sede y jubilación de la Dirección parece una constante en la trayectoria temporal de la Fundación Sancho el Sabio.

La sede precedente, desde 1991, se encontraba en el Palacio Zulueta, del Paseo de la Senda. Y la primera sede, hasta 1991, en la Plaza de la Provincia 13. Jesús Olaizola, primer Director de la Institución Sancho el Sabio, se jubiló con el primer cambio de sede y denominación de Sancho el Sabio. En el Paseo de la Senda, la Institución pasó a ser Fundación, y Carmen Gómez ejerció su dirección, sobre todo, en el Palacio Zulueta. De forma que cada cambio de sede parece que genera un cambio de dirección. Por ahora lo dejaremos ahí…

El caso es que Carmen Gómez inauguró dos sedes y ejerció en tres. Digamos que ahora mismo es la personalización más completa de la historia de esta Fundación. Y la cifra de diez años invita a ejercer una mirada cercana al pasado. Una Institución nacida dentro de la Obra Social de una Caja de Ahorros, pertenece ahora a su heredera, la Fundación Vital Fundazioa. Una buena idea mantenida y apoyada durante más de sesenta años. Y la historia y el apoyo continúan…

En 2011 un numeroso grupo de amigas y amigos, de compañeras y compañeros de profesión, de trabajadoras y trabajadores de la Fundación Sancho el Sabio, de responsables de Caja Vital Kutxa, de cargos institucionales, de periodistas, libreros…

kazetariak, liburu-saltzaileak eta abar bildu zituen talde handi batek Carmenen bizitza profesionalaren agur-ekitaldia egin genuen. Amaiera bikaina eta atsegina… Baina ez da amaiera izan. Hamar urte hauek ez dute ahanztura ekarri. Harremana dago, interesa, lotura, komunikazioa, laguntza... Ez dago lanbideari lotuta jada, bizipenak, zaintza, solasaldiak dira.

Hamar urte igaro ondoren, gure asmoa ez da agur-ekitaldi bat errepikatzea, omenaldi bat egitea baizik. Argitalpen hau hurbileko jendearen gogo biziaren, Santiago de Pabloren esperientzia eta arduraren emaitza da. Langile guztiek bilatzeko, komunikatzeko, zuzentzeko, gogoratzeko parte hartu izanaren emaitza... Charo Martínez, Inmaculada Valencia, Begoña Iriondo, Gurutze Arana, Txaro Montoya, Elvira Otero, David San Vicente. Eta adiskideek ikerketa-testuekin, Carmenekin izandako harremana gogorarazteko testuekin edota omenaldian parte-hartzaile gisa aipatuak izateko nahiarekin parte hartu izanaren emaitza.

Deitu diguten guztiak aipatu nahi nituzke, eta barkamena eskatu nahi dut inor ahaztu badut; ez dut nahita egin, baina ia beti gertatzen da bakarren bat ahaztea. Paco Allende. Carlos Ibañez, Félix López de Ullibarri. Román Berriozabal. Irune Zumalde. Ana Toledo. Arantzazu Amezaga. Isabel Azaola. Ramón Díaz de Durana. Nieves Taranco. Joseba Agirreazkuenaga. Leopoldo Zugaza. Julio César Santoyo. Alfonso Otazu. Antonio Unzueta. María del Mar Masedo. Juan José Agirre. Judith Sáenz de Tejada. Ander Manterola. Luis Angel Gaintza. Teresa Castro. Susana Araiz. Miren Barandiaran. Marian Egaña. Rafael Gómez Escolar. José Luis Vargas. Paloma Herrero, Rosa Preciado… eta ziur hemen egon nahiko zuketen baina aurkitu ezin izan ditugun beste hainbat. Dena den, argitalpen hau jaso edo irakurtzen dutenean besteak bezain parte-hartzaile sentituko direla espero dut.

Fundazioak bizitza ofiziala du, komunikabide, sare sozial, argitalpen, memoria eta beste hainbatetan jarduera-arrastoa utzi duena. Eskuragarri, digitalizatuta eta ondo zainduta dauden datuen bolumen etengabea eta goranzkoa dugu. Dokumentu-bilduma errepikaezina, koherentea, bidezkoa… Euskal Kulturarekiko dedikazioa, ikuspegi ireki, saiatu, bateratzaile, osatu eta unibertsalarekin.

hicimos una despedida de la vida profesional de Carmen. Un agradable broche final… Que no ha sido final. Estos diez años no han supuesto el olvido. Hay relación, interés, contacto, comunicación, ayuda. Ya no como profesión, sino como vivencia, cuidado, conversación.

Diez años y la idea de no repetir una despedida sino de celebrar un homenaje. Esta publicación es el producto del empeño de gente cercana, de la experiencia y dedicación de Santiago de Pablo. De la participación de todo el personal en buscar, comunicar, corregir, recordar… Charo Martínez, Inmaculada Valencia, Begoña Iriondo, Gurutze Arana, Txaro Montoya, Elvira Otero, David San Vicente. Y de la participación de amigas y amigos con textos de investigación, con textos de recuerdo de su relación con Carmen o con el deseo de aparecer citados como participantes en el homenaje.

Quisiera citar a todos los que nos han llamado y pido disculpas por los olvidos, involuntarios pero casi siempre inevitables. Paco Allende. Carlos Ibañez, Félix López de Ullibarri. Román Berriozabal. Irune Zumalde. Ana Toledo. Arantzazu Amezaga. Isabel Azaola. Ramón Díaz de Durana. Nieves Taranco. Joseba Agirreazkuenaga. Leopoldo Zugaza. Julio César Santoyo. Alfonso Otazu. Antonio Unzueta. María del Mar Masedo. Juan José Agirre. Judith Sáenz de Tejeda. Ander Manterola. Luis Angel Gaintza. Teresa Castro. Susana Araiz. Miren Barandiaran. Marian Egaña. Rafael Gómez Escolar. José Luis Vargas. Rosa Preciado. Paloma Herrero… y otras y otros que seguro hubieran querido estar y que no hemos logrado contactar. En todo caso espero que se sientan igual de partícipes al recibir o leer esta publicación.

La Fundación tiene una vida oficial, que ha dejado un rastro de actividad, en los medios de comunicación, en las redes sociales, publicaciones, memorias… Un volumen continuado y creciente de datos accesibles, digitalizados, preservados. Una colección documental irrepetible, coherente, pertinente… Una dedicación a la Cultura Vasca con una visión abierta, perseverante, integradora, completa, universal.

Pero detrás de todo, también con continuidad, dedicación, responsabilidad…están las personas. Personas que han estado y

Baina horren guztiaren atzean, era berean jarraitutasuna, dedikazioa eta ardura oinarri izanik, pertsonak daude. Euren bizitza aktiboaren zati handi bat Fundazioari eskaini dioten eta eskaintzen ari diren pertsonak. Oroimenak ekintzez osatuta daude, eta ekintzak pertsonen emaitza dira. Jada gure artean ez dauden pertsonak, bizitza profesional aktiboa amaitu duten edo denbora batez gurekin lan egin duten pertsonak, edota orain, hemen, lanean jarraitzen dutenak.

Carmen Gómezi egindako omenaldia, era berean, Sancho el Sabio proiektuan parte hartu duten pertsona guztiei egiten zaien aintzatespena eta oroitzapena da. Hiru egoitzek askotariko pertsona taldea ezagutu dute: ikerlariak, jakintsuak, kuriosoak... praktiketako ikasleak, bisitariak, laguntzaileak, zerbitzu-enpresetako langileak, lankideak …

Hamar urte hauetan itxaropenak bete dira. Jarduerak aurreikusita zegoen espazioa bete du. Hazkundeko hamar urteak ondo kalkulatuta zeuden. Baina beste espazio bat dago, espazio digitala, beste egoitza bat, birtuala eta edukiera-mugarik gabekoa, edukitzea ahalbidetzen duena. Liburutegi Digitala hurrengo egoitza izango da, jada hurrengo egoitza da.

Eta Carmenek, aurreko hiru egoitzak bezalaxe, egoitza hori ere ezagutu du. Zorionez.

*Jesús Zubiaga*

*SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA*

están dedicando gran parte de su vida activa a la Fundación. Las memorias se componen de acciones, y las acciones son fruto de las personas. Personas que ya no están entre nosotros, que han terminado su vida profesional activa o que nos han acompañado un tiempo, o que siguen aquí, ahora, en acción.

El homenaje a Carmen Gómez es también un reconocimiento y un recuerdo a todas esas personas que han participado en el proyecto Sancho el Sabio. Las tres sedes han conocido un variado grupo de personas investigadoras, eruditas, curiosas…de estudiantes en prácticas, de visitantes, de personas colaboradoras, de trabajadoras y trabajadores de empresas de servicios, de compañeras y compañeros de profesión…

Diez años que han cumplido expectativas. La actividad ha llenado el espacio previsto. Los diez años de crecimiento estaban bien calculados. Pero hay otro espacio, el digital, que permite tener otra sede, virtual, sin límite de espacio. La Biblioteca Digital será la próxima sede, es ya la próxima sede.

Y como las tres sedes anteriores, también la ha conocido Carmen. Afortunadamente.

*Jesús Zubiaga*
*FUNDACION SANCHO EL SABIO*